



Erreportaia Plazentziatarren arrastoak Filipinetan
Postontzia Maite Kintanillaren amodiozko gutun saritua

bitpilean

SORALUZEKO
HAMABOSTEKARIA
137. alea, 2006ko
uztailaren 7an

A photograph of Antonio Infante, an older man with grey hair and a mustache, wearing a striped shirt. He is standing in his workshop, which is filled with various mechanical tools and equipment. On a white table in front of him are several intricate mechanical models, including what appear to be small steam engines or pumps. The background shows a wall with papers and a yellow lamp.

*Antonio Infante
Armagintza bizibide eta zaletasun*




Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean



GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE



Fresaketa teknologia



SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

Herrixa herri



MIKEL SANTIAGO ARIZAGA

Herrixan ezer ez dagoela entzuten dugu maiz batean eta bestean. Lan aukera handirik ez dagoela, etxebizitza urria eta garestia dela, kalera irteteko girorik ez dagoela, jendeak denerako kanpora jotzen duela, Plaentxia lotarako herria bihurtu dela... Herrixa herri bilakatzen utzi behar ote dugu?

Nagusi jendeak herritarrek herriko ekitaldietan parte hartzen zuteneko sasoia bizi izan dute. Ez dut inola ere, ezer idealizatu nahi. Baina herri-bizitza aldatu dela ez du inork ukatuko. Zenbat jende bizi da herrixan, bertako eguneroko bizimoduarekin inolako inplikaziorik eta loturarik ez daukana?

Herrixa herri bihur ez dadin lan egiten duen jenderik bada, jakina. Guztion erantzunik jasotzen ez badute, ordea, urria izango da jasoko dugun uzta. EHan bizi dugun gatazka politikoak honetan eraginik izan ote du? Ziurrenik lagundu du. Eta orain gatazka hori konponbidean egon daitekeenean, ez ote daukagu aukera berezia, ezberdintasunak albo batera utzi eta herrixa herri izan dadin guztiok zerbait egiteko?

Gatazkaren konponbidean guztiok gara garrantzitsuak, eta denoi tokatuko zaigu

HERRI BAKOITZAREN HERRITARTASUNA RI EUSTEN EZ BADIOGU, NEKEZ ERAIKIKO DUGU EUSKAL HERRIA

horretan lan egitea. Herri mailan, baina, badaukagu nire ustez erantzunkizun berezi bat. EH ez dugu soilik eraikiko nazio eraikuntzaren inguruko printzipio haundiei jarraituz. Herri bakoitzaren herritartasunari eusten ez badiogu, nekez eraikiko dugu E.H.

Horretarako garaiz gabiltzan ikusi beharko dugu. Batzuk honez gero erosotasunean lokaturik biziko dira. Beste batzuk, etsita edo arrazoi ezberdinengatik jasotako kolpeen ondorioz minduta. Gaur egun indarrean den gizarte ereduak horrela bizi izatera garamatzala darabilgu maiz aitzakia gisa, ufal haundi batean murgilduta guk ezer egin ahal izango ez bagenu bezala.

Gizartea eta herria uztartuz aurki diezaiokegu honi konponbidea. Horren harira, Sarasua anaiek gatazkaren ondorioz E. H. bizitako banaketaren inguruan abestutako bertso batzuk datozkit gogora. Honela bukatzen ziren: "gizartea herri nahi dut / ta herria gizarte." E.H.arentzat oihukatzen zuten desio hau, gure herrixari ere opa diot nik, eta ez dut galtzen esperantza, guztion lanarekin, Plaentxiak herri izaerari eutsiko diola, Euskal Herri aske eta baketsu batean.



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze
Telefona 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno

Publizitatea: Ugaitz Catalan

Logotipoa: Jon Gabilondo

Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Diseinua eta maketazioa: BOROBILE Zerbitzu Grafikoak

I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek
erakunde hauen
dirulaguntza
jasotzen du euskara
bultzatzeko.



SORALUZEKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ERREPORTAIA

Filipinetako konkista, ein haundi batean, euskaldunek egin dela dio historiak. Mendeetako inmigrazioak gora beherak izan baditu ere, nabarmena da euskaldunek bertan utzitako arrastoa, baita plazentziatarrena ere.



Zorion agurrak



Antxon Zubiaurre

Uztailaren 8xan,
2 urte

Zorionak!!

Etsekuen partetik.



Ane Mendia

Uztailaren 8xan,
24 urte

Zorionak Anetxu!!

*Disfratau zure egunian!!
San Ferminak ez dira
aitzakixa... beti golferixan...
Etsekuak eta txikitinia.*



Irene Aristi Maiztegi eta Nora Gabilondo Aristi

Uztailaren 9xan, 31 urte
Uztailaren 14an, urtebete

Zorionak eta muxu haundi bat bixori!!
Amama.



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Ekintzak

Auzolandegiak gaixo mentalekin

Caritas; Gizaide Fundazioa. 20 urtetik gorakoentzat. 2006eko auzolandegia GIZAIDE Fundazioan (Donostia) izango da, Gaixo Mentalentzako Egunko Zentroan. Epea: Plazak bete arte.

Tel.: 943 27 92 30 (Yolanda Andres).

Balioa: 40,00 euro.

Lehiaketak

Juan Zelaia VI. Saiakera saria

Pamiela Argitaletxea. 6.000,00 euroko saria. Euskaraz idatzitako testuak, originalak eta argitaratu gabeak. Gaia librea da. Lanen luzera, gehienez ere, 75 orrialdekoa izango da.

Epea: 2006-08-31. **Tel.:** 948 32 65 35.

www.pamiela.org

Lana

Suhiltzaile ofiziala

Donostiako udala. Adar teknikoko goimailako titulu bat izatea. B+BTP gida-baimena izatea. 3. Hizkuntza eskakizuna. **Epea:** 2006-07-17.

Tel.: 943 48 10 00.

Iragarkiak

- **Pisukideak behar dira.** Bi pisukide behar ditugu Bilbon pisua osatzeko. Tel: 635 203 736 (Lara Alberdi).

Jaiotakoak

- ANDRES ELOY BALDEON ROMERO
- ASIER OÑEDERRA RODRIGUEZ

Hildakoak

- ANA M^a ALBISUA MADARIAGA
- LORENZA UMEREZ GURIDI



kutxa

gizarte ekintza

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



EDURTZA Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua



**Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



**EGUNKARIA
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
GEHIAGO ORDAINDU GABE**

**ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
tlf: 943 75 13 20**

Zer irizten dotsazu?

Gizartea asko aldatu da azken urteetan eta horrekin batera famili harremanak ere bai. Emakumea lan munduan integratzea izan da aipatzen den faktore nagusia.

Gurasuak nahikua arreta eskaintzen dotse umieri?



Olatz Oregi
28 urte, etxez etxeko langilia

Batzuek bai, baina orokorrian ez. Lehengo aldian libriau ibiltzen gara danok be, eta umiak be bai. Ardura gehixago eduki biharko leukie eta eron inguruan erabili.



Eliodoro Alvarez
63 urte, jubilatua

Danetik dago, ondo ta gaizki hezitzen dittuenak, betiko moduan. Gaur egunian igual umiak kapritxo gehixago dakez, eta gurasuak emon egitten dotsez.



Gorka Santamaria
10 urte, ikaslia

Nere ustez bai, ondo zaintzen gaittuela. Nagusixok gure aierera ibiltzen gara, baina ume txikixak gurasuekin egoten gara. Ni tiak zaintzen nau, aita ta ama lanian dare-ta, baina erokin be egoten naiz.



Aitor Morillo
22 urte, ikaslia

Ez dot uste. Gaurko umiak erantzun txarrak emoten dittue eta ez dake errespeturik. Igartzen da umiak ez dabela nahikua denpora pasatzen gurasuekin.



Milagros Menayo
54 urte, etxekoandria

Ez. Amamakin lagatzen dittue edo mila gauzatan apuntau. Gutxiago lan egin eta gauza gutxiagokin konformauko balira gurasuak, umiak erokin egongo lirakez eta ez lirake hain kapritxosauak izango.



Olatz Sebal
23 urte, ikaslia

Ez, inundi inora. Gurasuen adibidia euki biharrian telebistatik-eta ikasten dabe eron jokabidia zelakua izan biha dan. Igual gurasueri be seme-alabak hezteko argibideren batzuk emotia ondo legoke.

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K. Z. 20.000.434



HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

GAZTELUPE
taberna



tel: 943 75 20 81

Hasi dira Eliza barruko lanak

Joan den astelehenean hasi ziren Andra Maria Zeruratze elizako zaharberritze lanak. Egunotan barrukaldeko banku, figura eta antzerako elementuak kanporatzen jardun dute. Eliza hutsik geratzen denean hasiko dira barrukaldeko lanak: sakristiaren eta amabirginaren erretaularen konponketa, iluminazio eta megafonia berriztatzea, edo lurrazpiko berogailua jartzen, besteak beste. 16-18 hilabete iraungo dute lanak. Kapillan egingo dira aurrerantzean elizkizun guztiak.



Ikastetxeko patioiko lanak udan burutuko dira

Ekainaren 26ko gobernu batzordeak Plaentxi herri ikastetxeko patioaren zolatze-lanak "Asfaltos naturales de Campezo, S.A." enpresari esleitzea erabaki zuen, 145.272, 24 euroko zenbatekoz. Lanak udako hilabeteetan egingo dira, haurrak oporretan daukela aprobetxatuz. Plaentxi Herri ikastetxeko patioiko lanak zolatzearekin bukatuko dira beraz. 2005eko abenduan patioiko estaltze lanak bukatu ziren. Lanak irailean hasi zituzten eta



197.000 euroko kostua izan zuten. OZIO enpresak burutu zituen. Zentroko arduradunek denbora zeramaten patioiko lan hauek egiteko eskatzen.



ONGI ETORRI beroa egin zitzaion Regina Maiztegiri hilaren 24ko goizaldean, ia 3 urte espetxean eman ondoren aske utzi eta herrira itzuli zenean. Reginak eskerrona adierazi zien bertaratu ziren guztiei.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

SAN ANDRES
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefona 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefona 943 75 13 99
SORALUZE

ARRANO
tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

etxera

Telefona 75 24 09



Udalak PERa eta Etxeraten mozioa onartu ditu

Udalbatzar jendetsua eta luzea izan zen joan zen ostegunekoa. Onartu zen puntuetako bat, Erregetzeko aparkalekua egiteko, "Construcciones Moyua S.A." rekin sinatutako akordioa baliogabetzea izan zen. Udal Gobernuako ordezkariak erregetzeko aparkalekuen proiektuarekin jarraitzeko asmoa adierazi zuten. Bigarren puntua PERaren behin behineko onespina izan zen. Oposizio guztiak kontrako botua eman zuten. SAHk beste lehentasun batzuk daudela adierazi zuten. PSEko Soledad del Bosquek, berriz, plana herritar askorentzat kaltegarria

dela esan zuen. Zenbait herritarrek informazio falta salatu eta euren etsipena adierazi zuten. Frontoiko 13bko eraikina finkatzea ere oposizioaren kontrako botuekin onartu zen. Udal Batzarra EAJ-PNV eta EAK aurkeztutako bi moziorekin amaitu zen. Bata, 1936ko estatu kolpearen 70. urteurrenari zegokion. PPk ez zuen onartu, "revisionismoa" kaltegarria dela adieraziz. Bigarren mozioa Etxeraten izan zen, eta sakabanaketa eta isolamentu egoerak amaitzea eta konponbideak aurkitzea exigitzen zuen, besteak beste. PP eta PSE aurka agertu ziren.

Piboteak jarriko dituzte Santa Anan

Santa Anako zaharberritze lanen barruan, 3 pibote jarriko dituzte zapateria parean, bi finkoak eta bestea mugitzekoa.



Tanborradako entsaioak astearte eta ostegunetan

Arratsaldeko 19:30etan egiten ari dira tanborradarako entsaioak, astearte eta ostegunetan.



ESKERTZA

2006ko maiatzaren 1ean hil zen,
90 urte zituela

ILDEFONSA MADARIAGA TELLERIA

2006ko ekainaren 25ean hil zen,
59 urte zituela

ANA MARI ALBISUA MADARIAGA

Goian begoz

Sendiak bihotzez eskertu nahi dizuegu egun hauetan gure doluan laguntza eta elkartasuna eman diguzuen guztiori.



Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34





Herrialdea: Filipinetako Errepublika
(Filipinak izena, Felipe II erregearen omenez jarri zen)

Hiriburua: Manila.

Artxipiagoa: 7.000 uharte eta uhartetxo dago osatua.

Hedadura: 300.000 km².

Biztanleria. 87.857.473.

Hizkuntza: Bi hizkuntza ofizial: ingelesa eta filipinarra (tagalog-ean oinarritua).

Erlijioak: Katolikoak % 83, protestanteak % 9, Musulmanak % 5, Budistak eta bestelakoak % 3.

Txanpona: pisu filipinarra

Nazio produktu gordina: \$ 5.160.

Independentzia: 1898an Espainiak deklaratu zuen. 1946an EEUUK rekonozitu zuten.

Iturria: Internet.


Plazentziatarren arrastoak Filipinetako Errepublikan

Filipinetako konkista (1571.urtean), ein haundi batean, euskaldunek egina izan zela dio historiak. Espedizio burua Miguel López de Legazpi izan zen, Zumarragarra, eta berarekin batera euskaldun ugari joan omen ziren, misiolariak eta militarrek batez ere. Euskadunen inmigrazioak gora beherak izan ditu mende hauetan, baina bertan utzitako arrastoa nabarmena da, leku izenetan eta deituetan batez ere.

Plazentziatarrek ere utzi dute arrastorik. Erreportai honetarako, gaiarekin lotutako zenbait bitxikeria jaso ditugu.



**MENDIOLA ETA LEGARDA KALE-
AK, MANILA CITY ZENTROAN** Ramon Bereicua misiolaria 8 hilabetez bizi izan zen Manilan. Bitxikeria hau aurkitu zuen bertan: Mendiola eta Legarda, Ezozki auzoan elkarren ondoan dauden baserri bi, gurutzatzen diren kale bi dira Manilan. 50 dira guztira Manilan euskal izena duten kaleak, tartean Txurruka.



ZESTA PUNTALARIAK MANILAKO JAI-ALAIN. Argazkian ageri diren Eugenio eta Iñaki Muniosguren Osa anaiak bezala, zenbait plazentziatarrek Manilara jo zuten pelotari bezala bizimodua etaratzera. Jai - Alai frontoia itxi zen arte, zesta punta (Filipinetako kirolik popullarrena) eta "Bilboko txorizoa" ziren Filipinarrek euskaldunogatik zituzten erreferentzia bakarretakoak. Manilan pelotari jardun zuten, besteak beste: Julian Argarate (Jai Alai frontoiko intendente izan zen) eta Jose Antonio Elizburu Muniosgurennek.

Filipinetako Aranetatarrak

Pelikula baterako gidoia dirudien arren, halaxe gertatu da: Filipinetako familiarik aberats eta boteretsuenetako bat, Araneta familiakoak jatorri bila hasi eta Soroluzen bukatu zuten, Ezoziko auzoko Araneta baserrian. Gaurko jabeek, Ormazabal-Iraolatarrek istorio guztia kontatu digute. Apirilean, Jose Martin, Ezoziko eta Edurnek bisita bueltatu zieten Filipinetako Aranatarrei.



Zela hasi zenduezen harremanak Filipinetako Aranetatarrekin?

JM: Aranetan agertu ziran egun baten. Traste batzuk lagatzera juanda nenguan bertara eta han etorri ziran Ezoziko bidetik gora Plazentziako taxistia eta atzetik beste auto bat, Filipinaseko Aranetatarrekin. Judy Araneta, beran alabia, suiña eta loiba bi etorri ziran.

Zela heldu ziran plazentziara?

EZ.: Madrildik etorri ziran. Araneta abizenan jatorrian bila zebizen eta enbajadan helbide hau emon zotsen. Eurek 1723tik hona dake zuhaitz genealogikua eginda, Jose de Aranetatik aurrera. Gu agiri zaharretan begira ibili gara eta 1705. urtian Pedro de Araneta bat agiri da. Honen ondorengua izan leike familixa hau.

Zeintzuk dira Filipinetako Aranetatarrak?

ED.: Filipinetako familiarik boteretsu eta dirudunetako bat. Harrituta geratu giñan. Hiru ei dira Filipinasen boteria daken familiak: Ayalatarrak, Aranetatarrak eta Txi-nar batzuk.

Zentro komertzialak, azukararak, munduko koliseorik haundixena...danetik dake. Nazino erdi euren da. Judyn aittak, Amadeo Araneta hasi zan dirua eta boteria egiten. Judyn gizona diputau izan zan eta beran aitta Manuel A Roxas Filipinetako presidente. Oin euren semia, Mark Roxas Araneta oposiziñoko senadore da eta presidenterako gertatzen dihardue.

Gustau jakuen Plazentzia? Zeozek emon zotsen atenziñua?

J.M.: Parajia gustau jakuen, hamengo berdia eta. Baina sustauta zeren. Ezoziko partetik etorri zi-



ran pistan gora, taxistian atzetik, beldurrez.

Zuek be Filipinetara juan ziñaten...

ED.: Bai, telefonoz harremanetan jarraitu genduan eta Filipinetara juan bihar genduala eta juan bihar genduala esaten zoskuen. Aitta, ama eta hirurok juan giñan abilian 15 egunerako. Oso ondo hartu ginduezen. Txoferrakin da ibili giñan batetik bestera.

Euren etxiak "Whitehouse" zekan izena. Pare bat bidar isletan izan giñan afaltzen, jente inportantiakin: goberandoria, zirujau famosuak, polizia burua...

Gustau jatzue Filipinas?

J.M.: Manila nahiko desastre da, ez dago ondo organizata. Inguruetako islak, berriz, zoragarriak dira: salbajiak.

Euskal izenak eta, asko topau dozuez?

EZ.: Kale izenak mordua: Vizcaya, Bergara...Plazentziatar batekin be izan giñan, Eugenio Muniozgurenekin. Pelotari juan zan beran aitta Manilako jai-alaira. Oin frontoirik ez dago. Euskaldunak Casino español soziedadian elkartzen dira.

Harremanetan jarraituko dozue?

J.M.: Jarraitzen dogu bai harremanetan. Abuztuan Madrilera doiaz eta asmua dake berriz be hona etortzeko. Oin dala gutxi bakillaua eta antxoi-lak bialdu dotset korreoz. Askok gustatzen jakuez.





ITURBURU YOGA ELKARTEA sortu berri dute Soraluzeke yoga zaleek. Guztira, 40 bat lagun dira gaur egun herrian yoga praktikatzen dutenak. Argazkian kurso bukaerako afarian izan zirenetako batzuk. Uda ostean jarraituko dute eskolekin.

Azken hilabeteko kultur ekintzen argazki albuma


Ekaina bizia izan da kultur ekintzei dagokienez. Bateko jaiek, besteko kontzertuek, bizitasuna eman diote herriari. Eguraldi ona ez da ondartzara joateko bakarrik izaten. Asteburu hontan ondo pasatzeko beste aukera berri bat izango da San Andres auzoko jaietan



Ezoziko jaietan, idi-probak jente asko erakarri zuen plazara



Suaren bueltan eta suaren gainean saltoka gustora ibili ziren gazteenak



Euria zela eta, Galipoteko jaia elizpean egin behar izan zen



Fuenmayorreko San Juan abesbatzak bisita itzuli zion herriko abesbatzari

Zinea kalean: Aupa Etxebeste frontoian

Zinea kalean zikloaren barruan, "Aupa Etxebeste" pelikula ezaguna eskeiniko da gaur, ostirala, 22:30etan frontoian. Zikloko bigarrena izango, euskeraz. Uztailak 14an, hirugarren pelikula eskeiniko da, gaztelerez: "Ice age 2. El deshielo".

San Andres auzoko jaiek zapatatutik astelehenera arte

Urtero moduan uztaileko bigarren asteburuan jaiek antolatu dituzte San Andres auzoan. Hona hemen prestatu duten egitaraua:

Uztailak 8 zapatua

- 23etan **Imuntzo eta Belokire**-kin erromeria

Uztailak 9 domeka

- 12:30etan **meza**
- Dantza saioa eta bertsolariak
- Unai eta Enaitz trikitilariak
- 14:30etan **bazkaria** Elkartean
- 18etan Pelota partiduak
- 19etan Bola txapelketa
- **Zezentxoak** eta **poneiak**

Uztailak 10 astelehena

- 12:30etan **meza**
- Umeendako jolasak.
- **Laja eta Landakanda** trikitilariak
- **Lizaso eta Egaña** bertsolariak
- 14:00etan auzokoen bazkaria
- 19etan **Emakumeen Bola Txapelketa**
- Erromeria gauerdira arte.

Bibolin kontzertua Mendata tabernan

Jim TNT eta Amaia Artzamendi bibolin joleek kontzertua eskeiniko du zapatu honetan Mendata tabernan, arratsaldeko 6:30etan. Domentxu Uzinekin ere lagunduko die pare bat kantutan.

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behe, telf: 943751789



HNOS. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuesto konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Antonio Infante, *armagiña*

12 urtera arte Plazentzian bizi izan zen Antonio Infante-Cortacero (Soraluze, 1944) "Zuzendariaren etxea" izenaz ezagutzen zen Igarate basarrian. Bere aita, Antonio Infante, SAPAko zuzendari nagusia izan zen urte askoan, eta aitak bezala armagintza aukeratu zituen bizibide eta zaletasun. Andoaingo SAPAn plazentziarako kañoi pareak fabrikatzen ari direla jakin dugu eta Antoniorengana jo dugu Donostiara, hontaz eta bere miniatuazko kañoen zaletasunaz galdetzeko.

Hurtzaroa plazentzian bizi izan zenuen. Zer oroitzapen daukazu?

Euki daitezkeen oroitzapenik onenak. Igaraten bizi ginen, natura zoragarriaren erdian, eta oso ondo pasatzen genuen; laguna onak nituen. 12 urtera arte bertan bizi izan ginen. Gero Donostiara etorri ginen, aita Andoaingo SAPAko zuzendari ere bazen eta bertatik gertuago egotea komeni zitzaiolako.

Zuk zeuk ere armagintza aukeratu zenuen ogibide.

Hola da. Beti tiratu izan ninduten aitaren inguruan ikusi eta ikasi nituen gaiek eta ingenieritza egin ostean erreztasuna izan nuen SAPAn egokitzeke. Gaur egun zuzendari dihardut, ingenieritza eta komertzio arloan.

Zer sentitu zenuen Soraluzeko SAPA itxi zutenean?

Plazentziarekin lotura estua izan dugun guztiondako kolpe handia izan zen. Nik asko maite dut plazentzia, pentsa dezakezun bezala... baina tira, badirudi asmoa dagoela etorkizunean enpresarekin lotura duen zerbait egoten jarraitzeko, ez dadin plazentzia sekula ezabatu.

Fabrikan egiten dituzuen kañoiak bezalakoak zerorrek egiten dituzu, miniatuazkoak. Nola hasi zinen?

Kañoen ezagutza eta mekanikarako beti izan dudana zaletasunak batu ziren eta egundoko zaletasuna piztu zitzaidan. Etxean tailertxo bat daukat eta bertan aritzen naiz.

Neurri nahiko handia dutenak (1:10 eskala edo) egiten hasi nintzen, eta baditut dozena erdi holakoak. Gehien kostatu zitzaidana vokof hau izan zen. 4 urte behar izan nituen, bukatzeko. Nik kalkulatu dut, 3000 bat ordu. Duela 12 urte neurri



"Ramon Labaienek erakutsi zidan estainua funditzen"

txikiagokoak egiten hasi nintzen (1:30 eskala ingurukoak). Ramon Labaien Donostiako alkate izan zenak teknika bereziak erakutsi zizkidan estainua funditzeko. Hura berunezko soldadutxoak zale amorratuak da. Orain elkarlanean ari naiz berarekin.

Ze pauso jarraitu behar da holako kañoi bat egiteko?

Prozesua konplikatu da. Lehenengo dokumentazioa lortu behar da, eta hori ez da beti erreza izaten. Gero, zela fabrikatu dezakezun aztertu eta arazo posibleak konpondu behar dira. Hauetako kañoi batek 600 pieza izan ditzake eta egia esan pa-

zientzia handia euki behar da. Hala ere, behin egiten ari zarenean plazer handia hartzen da. Nanoak bezala pasatzen dut

SAPA plazentziarako kañoi pareak egiten ari dela entzun dugu. Zertan da kontua?

Plazentzian kañoi eukitzea nahi zuten, euren, eta fabrika geneukan bat eskatzen ziguten. Hura, ordea, museokoa zen eta ezin genuen eman. Orduan fabrika plazentziarako kañoi pareak egiteko prest agertu zen. Pixkat atzeratuta gabiz kañoiarekin, eta oso gaitza izango da aurtengo Santiago eta Santa Ana jaietarako han izan dezazuen, baina datorren urteko jaietarako seguru izango duzuela. Kañoi Napoleoniakoak dira, ingeles tipokoak, XIX. mende hasierakoak. Xumeak dira, baina oso politak.

"SAPA plazentziarako kañoi pareak egiteko prest agertu zen"



SORIA ALDEAN IZAN ZIREN mendi taldekoak uztailaren 1ean eta 2an, denboraldi bukaera ospatzen. Zapatuan, El Cañon del Río Lobo, Playa Pita eta Binuesa bisitatu zituzten. Domekan, berriz, Laguna Negra eta Pico de Urbión.

Aurtengo denboraldiko futbolari onenei sariak

Soraluze Futbol taldearen denboraldi bukaerako afarian, urtean zehar nabarmendu diren jokalariei sariak eman zitzaizkien, golik gehien sartu duenari eta jokalaririk erregularrenari. Kadete mailan Gino eta Oier Ariznabarreta izan ziren sarituak. Jubeniletan berriz, Jon Lamariano eta Jorge; eta talde nagusian Jurgi Rascon eta Joseba Gallastegi. Afa-lostean, Joseba Etxebarria presidentek hartu zuen hitza eta talde nagusiko jokalariei zuzenduz, datorren denboraldian Soran jarraitzeko aha-



legina egiteko eskatu zien, Gauza berria eskatu zioten jokalariek berari. Sari banaketa ostean Duo Plaentxik kantalditxoa eskeini zuen.

EMAITZAK

ESKU PELOTA

LASKURAIN

- Xala - Laskurain 22
- Capellan - Goñi III 8

ATXOTEGI

Getariakoa txapelketan

- Atxotegi - Larrañaga 22
- Bilbao - Arregi 1
- Atxotegi - Larrañaga 22
- Larrate - Ruiz 5

GAZTETXOEN PELOTA TXAPELKETAN

- Borja San Jose 18
- Ibai Kortabarria 15
- Xabier Bengoa 18
- Aitor Ontangas 10
- Mikel Oregi 18
- Alejandra 9
- Mikel Oregi Cacho 18
- Usama 17

AGENDA

PELOTA

Sanferminetan,

igandean, (ETBn)

- Del Rey - Laskurain
- Irujo

Asteartean

- Galarza V - Elgoro
- Capellan - Laskurain

Aretxabaletan, igandean,

Debarroko txapelketako finala

- Atxotegi - Arrizabalaga (Elgoibar)
- Mendizabal - Azkarate (Antzuola)

FUTBITO

Final laurdenetako kanporaketan, ostiralian, 8etan

- Bandera Trapo - Guri-Guri

Zapatuan, 9etan

- Torpedos - Artifices



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



JATETKEA
TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE



Diseinua eta Sormena

Polígono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Mirentxu...:

Hain don gogorra hemendik hiri idaztia... Bai hola don, ez don ez bape erreza. Min ematen josten oroitzapenek, min iragana akordau biharrrak...

Haiziak arpegixa laztantzen jostan, ta begixak itxiz hire esku fina sentidu neike. Bizitzian ximurren txokorik ezkutenen be ferekarik goxuea lagatzen daben esku hori. Aurrera zela jo jakitzen eneban egun gris haretan pausua emoten erakutsi josten esku berberak. Hiriak, ez beste inonak. Baina badakin basamortuan najaon eta hemen espejismo larregi egon ohi don. Eta nik ez jonat, ez, urik bihar nere egarri hau asetzeko, nik hi bihar haut, hi sentidu nere barrenian bidia inaz...

Gogoratzen al don erromerixatik erromerixara emoten genduzen garai harek? Zenbat dantza, barre... alkarrekin... Ene... Gu be ez ginttunan ez existitzen zian gazterik zintzuenak. Sekula ez jatan ahaztuko Maritxunian sagar lapurretan in ginuanekua. Etxerako ordua zonan, baina pikardixaz beterik esnatu omen ginuztanan egun hartan ta oheratu be bardin eitteko asmuaz. Bata arbola batera ta bestia ondokora igota horrek zitxunan garrasi eta algarak! Geu be argixak, zela ez jakunan ba etxekoandria urtengo atara giñuzen zaratekin! Han hasi hintzan hi antxitxika barre artian, nik bittartian al neban moduan sagar batzuk besuetan hartu eta atzetik jarraitzen hasi nindonan. Pinu artian galdu ta sekula ikusi doten tokirik politxenera heldu ginuztanan. Berbarik enajonan topau hango edertasuna deskribitzeko, baina hik bai laztana. Hire begirada harek dana esaten jonan, dan-dana.

Hasieratik jakin izan najonan, hirekin ez beste inokin zahartu nahi nabela. Hirekin bai Mirentxu. Billurra be emoten jostan, baina maitte danagaitxik borrokau biha zala esaten jostan beti aittak eta dudarik bare hala in jonau denpora luze hontan. Pausoz pauso lortutako maillasun zorua izan don guria. Bai zorua, azkenian ze don ba? Poztasuna ta tristuria aldi berian ekarri leiken hori, ase ta husten zaittuan hori, malkuak irribarre bihurtzen dittuana eta alderantziz... Sentimendu danak dantzan jartzen dittuana. Ez jonat uste beti edarra dan zeoze danik, hala be jainkuari eskerrak emoten hasi biakonon hire albuian maillasunan alde ilunik sekula ez jonat bizi izan eta.

Sahara. Badakin beti izan dala nere ametsa hona etortzia. Hilabete daroiat hemen, hilabete errefuxiatu izanaz, baina ikasittakua hainbeste don! Beti pentsau izan jonat pertsona oro ezautziak merezi jonala, danetatik ikasten baitta zeoze. Eta hemen be bardin pasatzen don. Gainera, ezautu eta lagun ein, bat izan don askotan. Euren eta nere sentimenduak bat itten jone maiz; euren amorru neria be bihurtuz, euren poza nere inez.

Lagun haundi bat in jonat, Miren. Maima jaukan izena, zoragarrixa don. Badakin? Hark neuri euren hizkuntzan berba itten jostan eta nik berari euskeraz. Ikaragarrixa don, askotan bajakinat ulertu be itten gaittunala, seguru najaon. Eta konturatu non, irribarre batek dakan indarra eta esanahixa zeintzuk dittun, ezton berba erdirik bez bihar ulertzeko, berba erdirik bez, maittia.

Barkamena eskatu biharrian aurkitzen non beste behin

be. Bai hala don, bajakinat igual ulertu be ez ebal eingo biaje hau bakarrik in bia nebala esan jostananian. Eta sentitzen jonat, baina hala izan bia zonan. Berandu bada be, ni neu aurkitzeko biharra nekan eta hortan ezin zoztanan lagundu. Lagatzen-lagatzen joan nindonan, beti be atzeratzen, zati handi baten ikaria itten zalako nere jabe. Dana aldatzeko izu hori gailentzen jatanan danan gainetik.

Oin bakarrik najaon. Baina hein handi baten atsegin jonat, azken finian nik bilautako bakardadia dalako, ez jostan berak neu aurkittu eta hori oso don diferentia.

Sensaziño raru don sentitzen jonatena, libria izatia nahi jonat... Herri honek sentidu nahi daben moduan libre, gure herrixa sentiduko dan lez aske... Baina egixa esan, hain ikusten jonat gertu nere akaberia... Orduan izango ete non ni libre?

Aaiun herrixan izan nindonan lehenengo egunetan, gogorra in jatanan oso. Herrixa bera okupauta jaonan eta nere osasunak egundoko gainbeheria euki eban. Baina aurrera jarraitzeko gogo horrek lagundu jostanan, oin najaon lekura heltzen. Batian okupaziñuan bortizkerixia izan zonan jaso nebana, oinguan berriz hemengo herritarren begixek hermina erakusten dabe. Kanpamendu honetan askiak omen dittun...

Euzkixak emon jittun gaurkoz bere azken berbak, eta bajoian... Ai, Miren, hau bai edarra... Deskribau ezinekua don oin momentuan ikusi neikien hau... Hik jakingo heuke, erromerixako egun haretan in eban bezela... Bajakinat ikusten doten azken gauza zoragarrixa dala...

Banajoian Miren, bueltauko nindonala esan neban, baina ezin jonat... Ez jaukanat indarrik aurrera eitten jarraitzeko... Gaitzak barrua jan jostan eta sekula baino gertuau ikusten jonat akaberia... Honek bultzau jostan billurak alde batera laga eta nere azken biagia eittera, eta bai azkena izango don, hemendik horrako bueltiaz konturau be ez naizelako eingo...

Hire azken laztan bat bia jonat...

baina jasota ba ez nindonan gustora geratuko azkena izatian garraztasuna eukiko ebalako.

Gertu hao, hala sentitzen jonat... eta hori ikaragarrixa don, benetan.

Sekula ez dudau, hi ezautzia izan dala zoriontasunan bidera eruan jostana.

Eta hor goixan najaonian be, hi izango haiz DANA neretako.

Eskerrak emotia don geratzen jatan azkena ta haundixena. Eskerrak haizena izan haizelako, eta izango haizelako...

Miren, aurrera eingo jonau beti!! Neuk be hala ingo jonat, toki berri hortan, hire izatetik indarra hartuaz.

Maitte haut, beti maitte izan haut eta hala izango don beti...

Mirentxu... **Nibuin igbala...**

Badakin, maillasunak negarra irribarre bihurtuko jon...

Ni neu, hiregaitxik

ARGITXO. Maite Kintanilla

06-06-17

Lehen Saria Soralueko Amodio Lehiaketan



Argazki zaharra



Iturria: Koro Larrañaga

1964ko tanborrada

Tanborrada lehen aldiz egin zen urtekoa da ale hontako argazki hau, 1964ko uztailak 25ekoa. Hasierako urte haietan, herriko neska gazteen artean erregina eta ohorezko damak aukeratzen zituzten soziedadeetan, tanborradako karrozian desfila zezaten. 1964an hauek izan ziren aukeratuak:

Erregina: Karmentxu Placencia
Ohorezko damak (Blue Bell taldekoak): Rosa Mari Aizpiri, Mari Fran Aizpuru, Ezoz Juaristi, Gloribel Oregi, Koro Larrañaga eta Maria Jesus Mendia.

Lehiaketa

Han, han, han!...

Aurreko aleko erantzuna

Garai baten Arrate aldetik ekaitza zetorrela somatzen zanian San Andresen kanpaiak jotzen ziran (Jose Urizar "Arteta") auzoko baserritarrei jakinarazteko. San Andresen "han, han, han!" entzuten zan, gero parrokixako kanpaiak "nun, nun, nun!" eta azkenerako Santa Anako konbentuko kanpaiak "teilatuan, teilatuan, teilatuan!".

HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Noiz egin zan lehenengo tanborradia?

- 1964
- 1969
- 1963

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net

Gogortuz
 Fisioterapia zentroa
 Oier Oregi Unamuno
943 75 00 22
 Santa Ana kalea 7 Soraluez Gipuzkoa

SARIA

Fisioterapia saio bat Gogortuz zentroan

AURREKO ALEKO IRABAZLEA
 M^a Jesus Iñurrieta

SARIA
 Afari bat Txurruka Jatetxean



VIDAL
frutadenda
 Etxaburueta 2
 Tel. 943752055

MENDATA taberna

- Pizzak ●
- Bokadilloak ●
- Sukaldetik zure etxera!!
- Kazuelitak ●
- Razioak ●

ostirala **08:30 - 22:30**
 larunbata **08:30 - 22:30**
 igandea **08:30 - 22:00**

Tel.: 943 75 13 87



Mutua General de Seguros

Loli Nievas García

Santa Ana, 13 • SORALUZE
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659
E-maila: mdnievas@mgs.es



PLACENCIA
KONTSUMO KOOPERATIVA

Esku eskura ! Telf.: 943 75 13 45



Lakuesta
Optika



Ikusmen arazozen frogak eta
argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59



Etxabe Harategia



Euskal
txahalkia
Bildotsa

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375



**MAKINA BEREZIAK
LERRO AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA**



SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE



LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea

Telf.: 943 75 25 57

Fax: 943 75 25 56

20590 SORALUZE

Garbiketa orokorrak
 Garbiketa industrialetan espezializatua
 Bulego eta lantegien mantenimendua
 Makina garbiketak
 Garaje garbiketak
 Obra amaierak
 Marmol eta terrazoen distiratzeta
 Graffiti garbiketa
 Lurzoru handien errazketa eta fregatuak

MABE
 ILEAPAINDEGIA



**ESTETIKA
 SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea
 Tel.: 943 75 14 89
 20590 SORALUZE

UFALA
 irish pub



Garargardoa
 eta Kafea

**aukera
 ugaria**

943 75 00 30

ARMENDIA
 JATETXEA



Ezoz Auzoa, 11
 20590 Soraluze
 Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

GURE ZERBITZUAK

ELIZPE
 Hortz Klinika



- Ortodontzia ikustezina
- Implanteak

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIARA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67